



**“Berrogeialdia ondo egitea PCRa egitea baino garrantzitsuagoa dela azpimarratu gura dugu”**

**Garazi Mugarza Markina**  
Koronabirus kasuen aztarnaria • 3



**“Lehen arreta zerbitzua eraginkorra izatea garrantzitsua da Osasun sistemak ondo funtzionatu dezan”**

**Luis Rodriguez Menarguez**  
Familia medikua Zornotzako Osasun Zentroan • 2

## **“Bentzeno piko oso altuak arnasten ari gara Durangon”**

Durangoko Udalak Tecnaliari enkargatutako ikerketa baten arabera, bentzeno maila altuak detektatu dituzte herrian. Ima Garrastatxu alkateak prentsaurrekoan adierazi duenez, kutsaduraren jatorria lurretan dago, eta, zehatzago esanda, saihesbidetik haragoko enpresa guneeetan. Durangoko Udalak Ingurumen Sailagaz eta lurretako Udalagaz batzeko asmoa du. • 4



**Tximeleta-har gautarra, azken egunetako zomorro plagaren eragilea**

**Garai** • Zomorro agerraldi batek ikusmina eta harridura sortu ditu Garain eta Durangaldeko beste hainbat tokitan. Ez dira kaltegarriak gizaki eta animalientzat, Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi duenez. • 5

**ALKIMAX**  
Irtenbideak alokatzen ditugu

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C • Tel.: 946 824 550  
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 • Tel.: 946 271 310  
alkimax@alkimax.net  
[www.alkimax.net](http://www.alkimax.net)



**JCB**



PLATAFORMAK, MANIPULATZAILEA, ARRABOLA ETA MINIKARGAGAILUA



**Luis Rodriguez Menarguez**  
Zornotzako Osasun Zentroko medikua  
Bilbo | 1985

## “Ospitaleetako aurrekontua hazten joan da, eta lehen arreta zerbitzuko ez; ondorioz, handitu egin da bien arteko lubakia”

Luis Rodriguezek sei hilabete daramatza Zornotzako Osasun Zentroko familia mediku moduan. Aurretik, beste zentro batzuetan jardun izan du. Beraz, ondo ezagutzen du lehen arreta zerbitzuaren funtzionamendua

**ZORNOTZA** • JOSEBA DERTEANO

**COVID-19ak aspalditik arrastaka zectorren arazoa lehtarazi du osasun zentroetan. Osagileek baliabide gehiago eta lan baldintza duinagoak eskatzen dituzte, lan kargari aurre egin ahal izateko. Horixe eskatzeko kontzentratu ziren joan zen barikuan osasun zentroetako atarietan. Zornotzakoan parte hartu zuen Luis Rodriguezek, hango osagilea delako. Lehen Arreta Arnasberritzen plataformako kidea ere bada.**

**Osasun Zentroen balioa eta han egiten den lana ez dela behar beste baloratzen esan izan duzue.**

Bai, horrela da. Orokorrean, osasun sistema publikoak ondo funtzionatu dezan oso garrantzitsua da lehen arreta zerbitzu eraginkorra izatea, gaixotasun askori aurrea hartzeko balio duelako. Esaterako, diabetes kasu bat txarto kontro-

latuta dagoenean, dialisia behar duten pertsonen kopurua handitu egiten da edo ultzerak sortzen zaizkie. Hori gastu bat da osasun publikoarentzat eta inportantea da jakitea etorkizunean horrelako gaixotasunak edo gaixotasun kronikoak ugaritu egingo direla, geroago eta gizarte zaharragoan bizi garelako. Baina lehen arreta zerbitzuan egindako diagnostiko arin batek eta gaixotasunaren jarraipen egoki batek gastu horiek aurreztu ditzake. Ikusten ez den lana da, gra-

“

**Politikari batentzat ikusgarriagoa da ospitale baterako erosi duen azken teknologia berria erakustea”**

fikoetan agertzen ez den datu bat eta, beharbada, horregaitik ez zaio ematen merezi duen garrantzia eta ez da inbertitzen zerbitzu honetan. Hedabideen aurrera irteetan, politikari batentzat ikusgarriagoa da ospitale baterako erosi duten azken teknologia berria erakustea, eta dinamika horretan sartuta gaude. Ospitaleetan geroago eta diru gehiago inbertitzen da eta lehen arretan geroago eta gutxiago. 2008ko krisitik datorren joera da. Orduan, aurrekontu guztiak murriztu zituzten, baina harrezkero ospitaleetako hazten joan da apurka, eta lehen arreta zerbitzuko ez. Ondorioz, handitu egin da zerbitzu bien arteko lubakia. Lehen arretako zerbitzu egoki bat eskaintzeko, Osasun Saileko aurrekontuaren %25 zerbitzu horretara bideratu behar dela esaten dute, baina gaur egun %17aren inguruan gabilta.

**Inbertsio gabezia zertan igartzen da gehien?**

Batez ere pertsonalean. Zenbat eta jende gutxiago, orduan eta denbora gutxiago dugu paziente bakoitza artatzeko. Kontsultak nahi baino azkarrago egin behar ditugu eta ezin ditugu nahi beste etxerik etxe bisita egin. Sarritan ez dugu astirik. Urteetan honela funtzionatu dugu: mediku edo pediatra batek oporrak hartzen bazituen edo bajan baze goen, oso gutxitan egoten ziren ordezkapenak. Geundenon artean konpondu behar genuen.

**COVID-19ak gehiago azaleratu du lehenagotik zectorren arazoa?**

Bai. Sistemaren arazoak disimulan pasatu daitezke funtzionatzen dabilen bitartean, baina kolapsa-

tzen bada, orduan azaleratzen dira denak. Horixe gertatu da COVID-19agaz. PCR probak egitea, euren jarraipena...

**Lan karga asko handitu zaizue.**

Hori da. PCRak egin behar dira eta egin ditzakegu, baina pertsonal gehiago behar da. Ez gara makinak. Esaterako, gaur egun gure erizain bat aztarnari lanetan dabil lanaldi osoan. Osakidetzak erizain gehiago kontratatuko balitu lan horiek egiteko, gure erizaina beste zeregin batzuetara dedikatuzko moduan egongo litzateke. Baina une honetan ezin du.

**Diozunez, pertsonala handitzea da zuen eskakizun nagusia, baina Jaur-laritzatik esan izan dute ez dagoela pediatra eta familia mediku nahikorik eskaerari aurre egiteko.**

Momentu honetan egia da. Baina geure buruari honakoa galde-tu behar diogu: "Zergaitik gaude egoera honetan?". Aurreikuspen faltagaitik gaude honela. Urte asko daramatzagu arazo honeguz eta ez zaio behar den moduan heldu.

Kalkuluen arabera, mediku guztien heren bat jubilatuz egingo da hurrengo hamar urteen barruan. Horiek denak ordezkatzeko, mediku gehiago trebatu behar dira eta plaza kopurua handitu egin behar da. Horrez gainera, familia medikuen baldintzak hobetu behar dira. Asko atzerrira, ospitale pribatueta- ra edo Osakidetza beste zerbitzu batzuetara joan dira, baldintza ho- beak eta kontratu egonkorragoak dituztelako.

**Eguneroko jardunean zer sentipen eragiten dizu gura zenukeen guztira heldu ezinak?**

Frustrazioa, sarritan. Esaterako, etxean zainketa aringarriak behar dituen betegaz zaudenean, garrantzitsua da, lan medikuaz gainera, pazienteak dioena entzutea, emozioak kudeatzen laguntzea, berari denbora bat eskaintzea... Baina agenda beteta daukazunean, burua beste nonbait egon daiteke eta ez diozu nahi beste denborarik eskaintzen. Baina baliabide gehiago barik ezin dugu ezer egin.



Herritarrak eta medikuak Zornotzako Osasun Zentroan, joan zen barikuko kontzentrazioan.

# “Kutsatzen dabiltzanen katea etetea da helburua, ospitaleetan gainkargarik gertatu ez dadin”

Askok urduri itxaroten dute aztarnarien deia. Telefonoaren beste aldean Garazi Mugarzaren ahotsa entzuten dute

## AZTARNARIAK • EKAITZ HERRERA

**Garazi Mugarza familia eta komunitate arretako erizain lez espezializatu da oraintsu. Baina gaur egun aztarnari lanetan dabil. ANBOTO Galdakaoko ospitalera joan da aztarnarien lana ezagutzeko.**

### Zelan hasi zara aztarnari?

Maiatzaren 25ean amaitu nuen espezialitatea eta lan poltsa zabaldu zuten. Lan hau egiteko, 36 pertsona kontratatu gintuzten. Asko beste erkidego batzuetatik etorritakoak ziren, orain arte EAEn Familia eta Komunitate Arretako espezialitatea ez delako errekonozituta egon.

### Zenbat aztarnari zaudete lanean?

300 bat aztarnari gaude. Horiatariko 36 bat kudeatzaile moduan gabiltza, osasun publikoko departamenduekin, Epidemiologia Sailkoekin eta Osalanegaz gabiltza bitartekaritza eta koordinazio lanetan.

### Nik positibo emango banu, zer galdetuko zenidake?

Sintomak hasi edo lagina hartu baino 48 ordu lehenagotik metro bi baino gutxiagora eta 15 minutu baino gehiago norekin egon zaren galdetuko nizuke. Labur esanda, zure kontaktu estuen zerrrenda bat eskatuko nizuke.

### Nahasmen handia izaten da kontaktuei deitzailean?

Kontzeptu bi bereizi behar dira, berrogeialdia eta isolamendua. Positibo ematen dutenak isolatuta egoten dira, eta kontaktuek berrogeialdia egiten dute. Guk azpimarratu gura duguna da PC-Ra egitea baino garrantzitsuagoa dela berrogeialdia ondo egitea. Lagina arin hartzeak ez du balio berrogeialdia ondo egiten ez bada. Intzidentziarik ez badago, kontaktuaren berrogeialdia 10 eguneko izaten da. Hor bigarren PCRa egiten da.

### Positiboari, oster, ez zaio bigarren PCR hori egiten. Zergaitik?

Ikusi da hileak pasatu daitezkeela negatibizatzen. Adibidez, martxoan kasu positiboak izan ziren batzuek beste proba batzuk egiteko PCRa egin dute orain, eta positibo eman dute. Hori ez da baieztatutako kasutzat hartzen momentu honetan. Ez du negati-

bizatu, baina ez du kutsatzen eta ez du sintomarik.

### Kasuak igo egin direla nabarrituko zenuten.

Maiatzetik hona, bai. Batez ere uztaile inguruan hasi zen igoera. Sasoi batean, egun biko atzerapenagaz genbiltzan deitzen. Orain hobeto gabiltza. Zifrak egonkortu egin dira. Behar izan denean, jendea kontratatu da, baina ez genuen espero hazkunde hau hain azkar gertatzea. Bestalde, lehen mailako arretan lankarga handia dute.

### Hemendik aurrera, zer? Eskolak, opor amaiera...

Hurrengo egunetan ikusiko dugu gauzak zelan doazen. Dena dela, eskolak beste interbentzio eremu modura ulertu behar dira. Asintomatikoak direnak edo sintomarik dituztenak identifikatzen lagundu dezakete. Umeen kasuak egunero egon dira orain arte ere. **Ikasleen kasuan, zein irizpide hartzen dira kontuan?**

Sei urtetik beherakoek maskara ipintzen ez dutenez eta distantziak mantentzea gatxa denez, kasu horietan gelako ume guztiak joango lirake etxera. Baina maskara erabiltzen duten kasuetan kontaktu estuen irizpideak hartzen dira kontuan.

### Herritarrok zelakoak gara telefonoaren beste aldean?

Orokorrean oso onak, baina bakoitzak bere arazoak ditu. Batzuek ez dute isolamendurik egin gura, ez dute informazioa ematen... Gazteengaitik esaten da, baina ez hain gazteek ere egiten dute hori. Negazionistak ere aurkitu ditugu. Kontaktua asko izanez gero, denbora behar da denekin kontaktuan ipintzeko. Hiru eguneko tartea izaten da proba egiten denetik emaitzagaz deitzen dugunera arte. Proben bolumena ere handia da eta horrek ere bere denbora behar du.

### Aztarnatzaileen lana luzerako doala ematen du?

Gura genukeena baino gehiago. Jokoan dagoena osasun publikoa da eta kontziente izan behar dugu horretaz. Martxokoa oso gogorra izan zen. Zentzuz jokatzeko dago; kutsatzen dabiltzanen katea etetea da helburua, ospitaleetan gainkargarik gertatu ez dadin.



**Garazi Mugarza Markina**  
Koronabirus kasuen aztarnaria

**Mallabia | 1995**

## AURTEN EZ DA TOKATZEN!



### IURRETAKO UDALAREN ADIERAZPENA

Urte hau ez da besteak bezalakoa. Aurten ezingo ditugu San Migel jaiak ospatu COVID-19ak eragindako egoera larria dela eta. Jaien gainetik, denon osasuna dago eta arduraz jokatu behar dugu.

Iurretako Udala osatzen dugun talde politikook adierazpen honen bidez herritarroei honako mezua helarazi nahi dizuegu:

- 1.- Iurretarrak kontuan hartu aurten ez dugula jairik ospatzen; ez ditzagun jai egitera edo jende pilaketak egotea bultzatu ahal dituzten ekintzak edo jarrerak izan.
- 2.- Beste herri batean bizi zaretenoi, bestalde, gure herrira festa egitera ez etortzeko eskatzen dizuegu.
- 3.- Iurretako Udaleko ordezkariok konfidantza osoa daukagu Iurretarrak beste behin ere elkar zaindiko dugula, zentzuz jokatu dugula, orain artean bezala.

Izan gaitezen arazoaren konponbide eta ez oztupo. Ez diezaiozun utzi birusari gure herrian sakabanatzen eta kontrolatu ezin den egoera batera heltzen. Gure ekintzek ondorio larriak izan ditzakete gudan eta maite ditugun pertsonengan. Izan gaitezen zentzudunak eta jokatu dezagun errespetuz, beranduegi izan orduko.

Datorren urtean jaiak ospatu eta elkarrekin egon ahal izateko, inoiz baino gehiago, beharrezkoa da orain neurriak hartu eta elkar zaintzea. Ziur gaude hala egingo dugula.

Aurten, ez da tokaten!!!

Iurretan, 2020ko irailaren 14an

Iurretako Udaldeko EAJ-PNV

Iurretako Udaleko EHBildu

Iurretako Udaleko PSE-EE (PSOE)

**IURRETAKO SAN MIGEL JAIK**



# Tecnaliaren ikerketa batek "oso bentzeno maila altuak" erregistratu ditu Durangoko eguratsean; emisioek lurretan dute jatorria

Bentzeno emisioek lurretako saihasbidetik aurrera dute jatorria. Ikerketa Tecnaliak egin du, Durangoko Udalaren enkarguz. Gobernu taldeak "kezka" hartu ditu emaitzak

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Durangoko Udala "oso kezkatuta" agertu da airearen kalitatea dela eta. Ima Garrastatxu alkateak argi esan du asteon: "Bentzeno piko altuak arnasten ari gara. Tecnaliakoek diote bentzeno piko altuak detektatzen diren momentuetan, kutsadura maila Zabalgarbiko erraustegikoa baino handiagoa dela". Metro kubikoko 700 mikrogramo bentzeno erregistratu dira iazko momenturen batean. Zehatz esanda, 2019ko abenduaren 2an.

Udalak Tecnalia ikerketa etxeari enkargaturiko txosten batek utzi du ondorio hori. Tecnaliak azterketa bat egin zuen 2019ko maiatzaren eta 2020ko maiatzaren artean, hatsaren jatorria ikertzeko. Txostenak ondorioztatu duen beste ondorio nagusi bat da bentzeno emisioak lurretatik datozela. Eta zehatzago esanda, saihasbidetik aurrera dagoen industriadetik. Bentzenotik apar-

te, tolueno eta estireno maila esanguratsuak ere erregistratu dituzte.

## Emisioek lurretako industrialde batean dute jatorria, saihasbidetik Zornotzarako aldean

Julian Rios alkateordeak esan du "Eusko Jaurlaritzaren neurketen arabera" airearen kalitatea "ona" zela: "Zoritxarrez, ikerketa honek arrazoa eman digu. Baita airearen kalitateagaz kezkatuta plataforma sortu zutenei ere". EAJri eta PSE-EERI egotzi die urte luzez "beste alde batera begira" egotea.

## Bentzenoa eta legea

Bentzeno mailak arautzerako orduan, legeak urteroko batez bestekoari baino ez dio erreparatzen. Hori azaldu du Aitor Larruzeak, udaleko ingurumen teknikariak.



Udal gobernu taldeko kideek eta ingurumen teknikariak urteazko prentsaurrekoa eman zuten egunean.

## Durangoko Udalak Ingurumen Sailagaz eta lurretako Udalagaz batzeko nahia agertu du

Isurketek ezin dute metro kubikoko 5 mikrogramo baino bentzeno

gehiago bota, batez beste, urtean. Durangon metro kubikoko 0,58 mikrogramo bentzeno erregistratu ziren, batez beste, 2019an. Horrek esan gurako luke batez bestekoaren barruan egon litezkeela emisioak, baina momentu batzuetan kutsadura maila nabarmen igotzen dela. Garrastatxuk

esan du Tecnaliako ikerlariak ez dutela sekula halako balio handirik atzeman. Udalak bilera egin gura du Ingurumen Sailagaz eta lurretako Udalagaz. "Udal honek pauso bat eman du. Orain besteei dagokie pauso bat ematea. Durangoko Udala laguntzeko prest dago", esan du.

# Durangoko kirol zerbitzuan "%46ko murrizketa" egon dela kritikatu du EAJk

Jeltzaleek kirolaren aldeko apustua egin dezan eskatu diote udalari. Murrizketak "atzerapauso" bat direla diote

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Durangoko EAJ "kezkatuta" agertu da udalak kirol arloan hartu dituen azken erabakiek. Zerbitzuak murriztu egin direla kritikatu dute eta horren adibide modura ipini dute Durango Kirolaren gertaturikoa. Diotenez, "%46ko murrizketa" egin dute Durango Kirolaren zerbitzuetan. "Kirol programazioaren murrizketa garrantzitsu honek atzerako urrats bat adierazten du, eta agerian uzten du

egungo gobernu taldeak garrantzi gutxi ematen diela kirolari eta jardura fisikoari", adierazi dute talde jeltzaleko kideek. Bestalde, murrizketa horiek enpleguan eragina izan dezaketela ohartarazi dute.

Baina ez da hori Durangoko EAJ kezkatzen duen kontu bakarra. Euren esanetan, erakunde autonomoetako kudeatzaile postua betetzea ezinbestekoa da, "figura horrek instalazio guztietako jarduerak koordinatzen ditu eta".

## 600.000 euroko defizita

Durango Kirolak entitatearen egoera ekonomikoa "delikatua" dela aitortu zuen udalak irailaren hasieran. Pandemiak zerbitzuak etenarazi zituen martxoan, eta, ondorioz, udalak ez zien abonurik kobratu erabiltzaileei. Etenaldi horrek, baina, arrasto nabarmena utzi du Durango Kirolaren balantze ekonomikoan. Abuztu amaierarako, aurreikusita zuenaren %40 baino ez du fakturatu entitateak. Horrek 600.000 euroko defizit negatiboa ekarri diola azaldu du udalak.



Landako kiroldegiko fitness gela.

**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2020ko irailaren 25a  
18. urtea - 821. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale

2015 **Bikam**

PEFC  
PEFC014-38-0025

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Larrinagatzuko bidea.

## Larrinagatzuko erreka konpontzen hasi dira

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Durango Udala Larrinagatzuko errekatxo konpontzen hasi da. Errekaren eraginez, aspaldidanik dabil errepidea kaltetzen, eta udalak dio horrek arriskua dakarrela, auzorako sarbidea isolatatu daitekeelako. Adif enpresak 2011n desbideratu zuen erreka, Durango eta Zornotza arteko Abiadura Handiko Trenaren plataforma eraikitze obrak zirela-eta. Orain, errekatxo konpontzeko lanei heldu behar izan die Durango Udalak.

## Hirigintzari ikuspegi feminista bat emateko parte-hartze prozesua, martxan

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Durango Udalak parte-hartze prozesu bat zabaldu du etorkizuneko hirigintza proiektuek berdintasun ikuspegi bat jasotzen dutela ziurtatzeko. Prozesu honetatik irten diren irizpideak Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPO delakoan) txertatzea da parte-hartze prozesuaren helburua.

Prozesuaren lehenengo fasea martxan da. Udalak galdetegi bat ipini du bere web orrian. Herritarrek bertako galderei erantzun ahalko diete, gero, horiek, isla izan dezaten antolatzeak diren tailerretan. Izan ere, aurrerago, udalak tailer batzuk antolatuko ditu herritarren proposamenak jaso eta diagnostikoa egiteko.

# Zomorro agerraldi batek ikusmina eta harridura sortu ditu Aiartza inguruan

Garaitarrek harriduraz bizi dute egunotakoa. Zomorroaren izen zientifikoa 'Mythimna unipuncta' da. Adituek diote ez dela intsektu arriskutsua, eta bere kabuz hil ohi dela



Durungaldeko beste herri batzuetan ere agertu da zomorroa.

## Larreako fitness gelak berriro ere zabaldu ditu ateak

**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Larreako fitness gimnasioak astelehenean zabaldu zituen ateak. Udalak hainbat neurri arautu ditu erabiltzaileen osasuna bermatzeko. Gehienezko jarduera 60 minutukoa izango da eta alda-

gelak eta dutxak ezingo dira erabili. Maskara erabili beharko da instalazioetan, baita gimnasioko aparatuen arteko trantsizioetan ere. Bertara sartzeko, aurretik hitzordua eskatu behar da, 685 750 915 telefonora deituta.



Larreako kiroldegia artxibo irudia.

**GARAI • EKAITZ HERRERA**

Azken egunetan zomorro talde handi bat ibili da Garaiko Aiartza auzoaren inguruetan. Baserriren baten etarteraino ere ailegatu dira zomorroak, eta, kasu batzuetan, baita etxe atariraino bertaraino ere.

Udalak joan den asteko egunean izan zuen gertatzen ari zena berri. Plagak kontrolatzeko enpresa bati deitu zion eta egun hartan bertan joan ziren teknikariak Garaira. Santurtziko Tres de Lan enpresako kideak Aiartza inguruan ibili ziren. Enpresako zuzendari teknikoa da Javi Lombera eta lasaitasunerako deia egin du. "Ez da plaga arraro bat, ez da ezohikoa eta ez da arriskutsua", dio. Lomberak ez du intsektuaren izena zehazterik izan, baina azal-

du du zomorroa lurrean bizi den intsektu mota bat dela: "Lurrean bizi da. Lurreko intsektua da. Ez da arriskutsua, nahiz eta haren presentziak higuina eragin dezakeen".

### Sikateagaitik ote?

Ez dago argi zein arrazoirengaitik gertatu den ezohiko irudi hau, baina Lomberak dioenez, eguraldian egon daiteke fenomeno honen azalpena. "Ikusi dugu hainbat puntutan gertatu direla zomo-

roen arrautza eklosioak. Ez dakigu zehatz zergaitik. Izan daiteke egunotako sikateagaitik. Eta izan daiteke sikatearen osteko trumoiagaitik ere".

### Tximeleta-har gautarra

Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi duenez, *Mythimna unipuncta* da zomorroa. Tximeleta-har gautarra da. Harrak ez dira egunez ikusten, baina iluntzeetan talde handitan irten ohi dute elikagai bila. Jatekoa falta dutenean, belardietara eta arta-soroetara jotzen dute elikagai bila. Zelaietako gramineoei eraso egiten diete, baina ez dira kaltegarriak gizakiarentzat eta animalientzat. Berrizen, Atxondon eta Abadiñon ere antzerako egoerak bizi izan dituzte egunotan.

**"Lurrean bizi den intsektua da; ez da arriskutsua, nahiz eta higuina eragin dezakeen"**

## Animatu gure Haurreskoletako partaide izaten HAURRESKOLETAN HAURREN ONGIZATEA HELBURU

Matrikulazioa : Urriak 1etik 9ra

Haurrekolak



### ZORNOTZAKO HAURRESKOLA

Larrea auzoa, z/g AMOREBIETA-ETXANO  
Tel.: 946 730 346  
zornotza.amorebieta@haurrekolak.eus



### ATXONDOKO HAURRESKOLA

Foruen plaza, 7 ATXONDO  
Tel.: 946 859 002  
atxondo.atxondo@haurrekolak.eus



### ETORKIZUNA

### IURRETAKO HAURRESKOLA

Olaburu, 5 IURRETA  
Tel.: 946 200 937  
iurreta.iurreta@haurrekolak.eus



### ZELAIETA

### ABADIÑO KO HAURRESKOLA

San Trokaz enparantza, 7 ABADIÑO  
Tel.: 946 200 672  
zelaieta.abadino@haurrekolak.eus



### EGUZKILORE

### BERRIZKO HAURRESKOLA

Margarita Maturana, 4 BERRIZ  
Tel.: 946 826 339  
eguzkilore.berriz@haurrekolak.eus

## Datozen hileetan parke berria egongo da Elorrion: Montorra parkea

Joan zen astetik, martxan daude lehenengo faseko lanak; 178.500 euro bideratu dituzte



Buzkantz kalearen aurreko berdegunea egokitzen hasi dira.

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Buzkantz kalearen aurrean dagoen gunean lanak egiten hasi dira eta Elorriok beste parke bat izango du datozen hileetan: Montorra parkea. Udaletik jakinarazi dutenez, gune horrek 12.000 metro karratu baino gehiago izango ditu, eta, horrela, "urteetan lortu gura zuten egitas-moa" errealitate bihurtuko dute.

Lanen lehenengo fasea joan zen astetik dago martxan. Lehenengo fase horretan, hainbat bidexka izango dituen gune berde handia egokituko dute. Baita txakurrak ibiltzeko gune libre ere. Horretarako, 178.500 euro bideratuko dituzte.

Udaletik nabarmendu dute, proiektu hau gauzatzen denean Elorrioko erdiguneko berdegunetik handiena bilakatuko dela Montorra parkea, herritarren "eskari historikoari" erantzunez.

Elorrioko Udaleko kideek onartu dute hasierako planak atzeratu egin direla, URAk eman beharreko baimena "uste baino geroago" heldu delako. "Ezin izan dugu oraindino egin, URAren baime-naren zain egon garelako, baina obrak hasita daude eta hile gutxi barru, Elorriok erdialdean izango duen espazio publiko naturalik handienaz gozatzeko aukera izango dugu", adierazi du Idoia Buruaga Elorrioko alkateak.

## 60 urtetik gorako pertsonentzat Parke Osasungarriak tailerra antolatu dute Berrizen

### BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak Parke Osasungarriak ekimena ipini du martxan, adineko pertsonentzat. Herrian dauden parke biosasungarriak zelan erabili behar diren nagusiei azaltzea da tailer horren helburua, eta baita 60 urtetik gorako herritarren artean jarduera fisikoa bultzatzea ere.

Tailer hauek irailean eta urriaren zehar emango dituzte: irailaren 29an, eta urriaren 6an, 13an eta 20an.

**Irailaren 29an, eta urriaren 6an, 13an eta 20an egongo dituzte Parke Osasungarriak**

### Izena ematea, derrigorra

Berrizko Udaletik jakinarazi dute Parke Osasungarriak ekimen hauetan parte hartu gura duten 60 urtetik gorako herritarrek derrigorrez izena eman behar dutela.

## Hainbat atxondar kexu dira azken hileotan ez dutelako sarri medikurik izan

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ANBOTOrri baieztatu dienez, Apatamonasterioko Osasun Zentroko kontsulta medikoa itxita egon da udako egun batzuetan

### ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko hainbat herritar kexu dira azken hileotan ez dutelako "sarritan" medikurik izan Apatamonasterioko Osasun Zentroan. "Osasun Zentrorra deitu eta medikua ez dagoela esaten ziguten. Larrialdiren bat izanez gero, beste zentro batera bideratzen gintuzten", jakinarazi dute herritar batzuek.

ANBOTOk Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailagaz berba egin du, gaia zelan dagoen jakiteko asmoz. Eta Osasun Sailak baieztatu egin du Atxondoko kontsulta medikoa itxita egon dela udako egun batzuetan. Hala ere, osasun-arreta urgentea eta atzerazina "uneoro ziurtatuta" egon dela azaldu dute. "Urgentziatzko

kontuak, egunean bertan arreta behar izan dutenak, Matienako Osasun Zentrorra edo Elorriokora bideratu ditugu", azaldu dute. Herritarrentzat lekuz aldatu behar izatea "eragozpena" dela aitortu dute, baina zentroen artean dagoen distantzia "txikia" dela ere esan dute Osasun Saitetik.



Apatamonasterioko Osasun Zentroa.



Igerilekuak uztailearen 9tik irailaren 15era egon dira zabalik.

## 7.657 lagun igaro dira Atxondoko igerilekuetatik

Atxondoko Udalak "balantze positiboa" egin du Apatamonasterioko igerilekuek izan duten erantzunagaz

### ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Uztailearen 9an zabaldu zituzten Atxondoko igerilekuak, eta ordutik irailaren 15era arte, 7.657 lagun igaro dira bertatik. "Uda arraro eta ezohiko honetan bagenekien oso garrantzitsua zela igerilekuen denboraldia aurrera ateratzea eta segurtasun bermee-

kin egitea", esan du Xabier Azkarate alkateak.

Udalak igerilekuen balantze positiboa egin du eta, esaterako, uztailean 3.603 lagun igaro zirela azaldu dute. "Sarbide kopuruari buruzko datuak oso positiboak dira, eta udal moduan oso pozik gaude", gaineratu du alkateak.

# Osasun gida

anboto

**Ginekologia**  
PSE: 93/18

**mam** ginekologia zentroa

Mikeldi 13, 48200 - DURANGO  
T 946 05 53 04  
info@mamginekologiadurango.com  
www.mamginekologiadurango.com

**HITZORDUA ESKATU**  
**674 322 360**

**Fisioterapia**  
PSE: 119/13

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea  
behea eskuma  
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

**Fisioterapia**  
PSE: 57/16

pablo zubizarreta  
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D  
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com  
946 550 049 - 695 784 963

**Optometria**  
PSE: 162/13

Naia Zabala  
Azumendi  
11587 kol. zk.

keinu

- Optometrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboak • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99  
www.keinuoportmetriazentroa.com

**Podologia**  
PSE: 148/13

**PAUSOZ  
Podologia  
Klinika PAUSO**

Goiatz Murua  
kol. zbk. 147  
Ainhoa Elorza  
kol. zbk. 238  
Nerea Rodriguez  
kol. zbk. 329

Kiropodia, onkopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630  
Monago Torre 4, behea 48200 durango

**Odontologia**  
PSE: 145/13

clínica dental hortz klinika  
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenetz, betidanik izan gara adituak esterilizazioan. Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194  
454uecdental@gmail.com

**Odontologia**  
PSE: 112/13

**J.L. URRETA ZABALO**  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
IMQ, PADI (umeen hortz programa)  
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.  
48200 DURANGO  
Tel.: 946 812 200

**Estetika**  
PSE: 16/09

**AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

**Laser berria:**  
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

**Txatxiena, 6**  
48200 - DURANGO  
Tel.: 946 810 387

**Psikologia**  
PSE: 62/11

**JON ARRUABARRENA**  
PSIKOLOGO KLINIKOA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK


**Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO**  
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz  
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

**Pedagogia**  
PSE: 63/63

**UGATZ**

**UMEAREN  
GARAPENERAKO ZENTROA**  
Laguntza goiztiarra,  
psikomotrizitatea,  
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea  
DURANGO  
ugatz@hotmail.es  
944 668 370 - 615 782 090



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**

# Katalamixonek ekitaldiak egingo ditu bost urteko ibilbidea borobiltzeko

Taberna ibiltaria eta bideo emanaldia antolatu dituzte astebururako; osasun krisialdi betean ere aisialdi eskaintza "segurua" egitea posible dela erakutsi gura dute



Artxiboko argazki bat.

**ABADIÑO • ARITZ MALDONADO**

Abadiñoko Katalamixon aisialdi elkarteak ekitaldi sorta antolatu du bere bosgarren urteurrena ospatzeko. Hasieran adin tarte txiki baterako aisialdia eskaintzeko helburuagaz jaio bazen ere, hazten joan da urteotan, batez ere inguruko inplikazioari eskerrak. "Beguraleak, begirale ohiak, umeak, gazteak, gurasaok... oso komunitate zabala eta polita osatzen dugu", azaldu du Irati Bazeta Katalamixon elkartearen kideak. Katalamixonek gorabeherak eduki ditu, eta aurretik are gehiago, koronabirusaren agerpenagaz. "Itxialdian internet bidezko programazioa eskaini genuen, pantaila baten bitartez izan bazen ere, eta umeek eskertu egin zuten horrelako ekintzak eskaintzea",

azaldu du Bazetak. Udalekuak, ostera, bertan behera utzi behar izan zituzten. "Segurtasuna eta osasuna bermatzeko hartu beharreko neurriak ez ziren bateragarriak udaleku batzuekin, baina, hala ere, beharrezko neurriak hartuta aisialdia eskaintzea posible dela erakutsi dugu", gaineratu du.

## Urteurren ekitaldiak

Zapatuan, hilak 26, taberna ibiltaria egongo da euskal kantuez go-

**Beharrezko neurriak hartuta aisialdiaz gozatzea posible dela erakutsi gura dute**

zatzeko; probalekutik abiatuko da, 18:30ean. Bestalde, domekan bideo emanaldia egingo dute urteotan

**Urriaren 16an bertso saioa egingo dute Durangaldeko lau bertsolarigaz**

bildutako irudiekin. Urteurren festa borobiltzeko, bertso saioa egingo dute urriaren 16an; Bittor Altube, Leire Vargas, Igor Galarza eta Araitx Katarain arituko dira bertsoan. Jon Zialzetak ipiniko dizkie gaiak. "Ea urriaren 16an Probalekua bete ahal dugun", esan du Bazetak.

# Berrogeialdia amaituta, Traña-Matienako eskolako 50 ume klasera itzuli dira

**ABADIÑO • A.M.**

Matienako eskola publikoko 6.LH-ko ikasleak berriro hasi dira modu presentzialean ikasten, ikasle batek positibo eman eta denak berrogeialdian egon eta gero. Abadiñoko Udalak ohar baten bitartez jakinarazi du aste honetan umeek koronabirusik ez dutela egiaztatu ostean bueltatu direla klaseetara. Horrez gainera, Mikel Garaizabal alkateak eskerrak eman gura izan dizkie ikastetxeko zuzendaritzari eta Osakidetxari kutsatzeak eragozteko protokoloa "azkar eta eraginkortasunez" martxan ipintzeagaitik.



Matienako eskola publikoa.



Tor.

# Zaldibarko IV. Mendi Jardunaldiak datorren astean hasiko dira, eguenean

Silvia Triguerosi buruzko 'Tor' pelikula eskainiko dute, urriaren 5ean, eta korrikalariak berbaldea eskainiko du gero

**ZALDIBAR • A.M.**

Zaldibarren Mendi Jardunaldiak egingo dituzte, laugarrenez. Datorren eguenean, urriak 1, Bilbao Mendi Film Festivaleko lau pelikula eskainiko dituzte liburutegi zaharrenean; urriaren 8an ere eskainiko dituzte film hauek. Bestalde, urriaren 5ean *Tor* eskainiko dute, eta Silvia Triguerosen, filmeko protagonistak, berbaldea emango du. Proiektzio guztietarako sarre-ak liburutegian eskatu behar dira, eta doakoak dira.

## Txikonen 'Mendi Biluzia'

Zikloa borobiltzeko, Alex Txikonen *Mendi biluzia* pelikula eskainiko dute, abenduaren 1ean.

**Urriaren 1ean eta 8an Bilboko Mendi Film Fest jaialdiko pelikulak eskainiko dituzte**

**Sarrerak doakoak izango dira, eta liburutegian eskatu beharko dira; aforoa mugatua izango da**

# Muntsaratzeko jolasgunean estalki berria ipini dute

Abadiñoko Udalak 112.580 euro inbertitu ditu

**ABADIÑO • A.M.**

Javier Crespo alkateordearen esanetan, "abadiñarrek eskatutako lan" bat egin da parkearen estalkia ipinita. "Orain, eguraldi txarra egiten duenean ere erabili daiteke jolasgunea", adierazi zuen Cres-

pok ohar baten bitartez. Aterpeaz gainera, pasabide bat ere ipini dute, jolasgunea eta aterpea lotzeko, euria egiten duenean, alde batetik bestera busti barik joan ahal izateko. Estalki berriko lanek 112.580 euro balio izan dute.







Hizkuntza Escuela Oficial  
Eskola Ofizial de Idiomas

Hizkuntza eskolan?

Bai. Ikasi euskara

Ja. Lernen Sie Deutsch

Oui. Apprenez le français

Yes. Learn English

### Esperientzia handia

1994tik Durangon

### Hizkuntzak

Euskara, alemana, frantsesa  
eta ingelesa.

### Mailak

A1 - A2 - B1 - B2.1 - B2.2 - C1

### Orduak

Astean 4:30 ordu, egun bitan

### Titulu ofizialak

A2 - B1 - B2 - C1

### Prezioa

72,36 €  
ikasturte osoa

### Matrikula

ON-LINE

1. fasea: irailaren 1etik 28ra

2. fasea: irailaren 28tik urriaren 15era

PRESENTZIALA

Azaroaren 2an

### Talde semipresentzialak – eskaintza

Euskara C1: 4 talde  
Ingelesa B2.2: 3 talde

[www.eoidurangoheo.hezkuntza.net](http://www.eoidurangoheo.hezkuntza.net)  
94 620 33 42 – 94 681 66 45



# "Denon osasuna" jaien gaineratik ipinita, iurretarrak ez dituzte sanmigelak ospatuko

Iurretako Jai Batzordeak aurreratu du udazkenean zehar zabalduko dutela prestatu duten kultur eskaintza



lazgo jaietako argazkia.

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Jai giroa ate joka legoke honezkerok iurretan. Jai hasierako txapligoa noiz botako, Montoian lekua hartzeko prest leudeke iurretarrak. Hala ere, aurren, beste era batekoa izango da San Migel bezperako irudia. Aurren ez dituzte sanmigelak ospatuko iurretan. "Denon osasuna dago jaien gaineratik, eta arduraz jokatu behar dugu". Mezu hori zabaldu dute udala osatzen duten hiru alderdiek, eta iurretarrak "zentsuz" jokatu dutela uste dute.

Kaleratutako bandoan, herritarrengan "konfiantza osoa" duela gaineratu du Iurretako Udalak. Jai

Batzordeak ere jaiak ez ospatzeko erabakia hartu du, udalak egin dako deia aintzat hartuta. "Pena handiz" hartutako erabakia da. "Baina denon osasunerako onena dela pentsatuz" hartutakoa, azaldu dutenez. Jai Batzordeak zentsuz jokatzeko deia egin die herritarrei,

**Jai Batzordeak "denon osasunerako onena dela pentsatuz" hartu du jaiak ez ospatzeko erabakia**

eta aurreratu du udazkenean zehar zabalduko dutela prestatutako kultur eskaintza.

**Jai egitera edo jende pilaketak egotera bultzatu dezaketen ekintzak ez egitea eskatu du udalak**

Iurretako Jai Batzordeak argi du kultura segurua eta beharrezkoa dela. "Bizi dezagun udazken koloretsu bat, urte berriagaz sanmigelak barriro loratuko diren

esperantzan. Segi dezagun denok jai herrikoi eta parte-hartzaileen aldeko lanean, eta gazte belaunaldi berriak horretara batzera animatu gura ditugu", zabaldu dute gutun baten bitartez.

## Jairik ez egiteko deialdia

Iurretako Udalak herritarrei eskatu die kontuan hartu dezatela ez dituztela San Migel jaiak ospatuko. Beraz, jai egitera edo jende pilaketak egotera bultzatu dezaketen ekintzak ez egitea eskatu die. Era berean, beste herrietako jendeari ere Iurretara festa egitera ez etortzeko eskatu die.

## Alaitz Areitio aske geratu da 13 urte espetxean egon ondoren



## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Alaitz Areitio Azpiri preso iurretarra aske geratu da, espetxean hamahiru urte egin ondoren. ETAko kide izatea leporatuta egon da espetxean. Iurretarrak joan zen irailaren 18an irten zuen Renneseke (Britainia) espetxetik eta hangotele batean daukate

## Renneseke (Britainia) hotel batean daukate bakartuta, koronabirusagaitik

bakartuta, koronabirusarengaitik. Areitio COVID-19aren protokoloa bete behar izan du eta horregaitik ez du aukerarik izan oraindino Euskal Herrira bueltatzeko.

Alaitz Areitio 2007ko ekainean atxilotu zuten, Frantzian, Igor Igartuagaz batera. Iurretarra Renneseke espetxean egon da zigorra betetzen, ETAko kide izatea leporatuta.

## Mugarrietan geldialdirik egin barik bada ere, Otxandion eutsi egin diote Basabisitari

300 urte baino gehiago dituen usadioari eutsi diote

## OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Iraileko hirugarren domeka egun seinatuta izaten da Otxandion. Herritarrek, udal ordezkariak lagunduta, Otxandionko mugarriak bisitatzen dituzte 300 urte baino gehiago dituen usadioari jarraituta. Otxandiarren nortasuna eta lurraldetasuna baieztatzeko ekimena izaten da. Joan zen domekan ohi-tura horri eutsi zioten, segurtasun

eskakizunetara egokitu behar izan zuten arren. Talde txiki batek egin zuen ibilbidea, denon ordezkari. Ez zuten geldialdirik egin Mugarrietan, ez zuten pintxo janik egin eta alkateak ez zituen aizkoragaz markatu mugarrien ondoko zuhaitzak. Ekimen hori, zuhaitzak horretarako propio egindako aizkora batez markatzearena, aste honetan zehar egin dute.



Joan zen asteburuko Basabisitako irudia.

# Rafa Harategiaren lokala erosi eta denda horren kudeaketa lehiaketara aterako du Mañariko Udalak

Komertzioko arduradun Rafa Bizkarrak erretiroa hartuko du 2021eko otsailean eta udalak bizirik eutsi gura dio herriko denda bakarrari



Rafa Bizkarra bere dendako harategian; herritik kanpoko jendea ere joaten zaio harategira.

## MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Rafa Harategia —Bizkarra Harategia izenagaz ezagunagoa— beste denda bat baino gehiago da Mañarian. Herrian dagoen bakarra da. Harategia du, eta baita beste produktu batzuk erosteko gunea ere. Supermerkatu txiki bat da. Herritar asko bertara joaten dira erosketak egitera; baita Mañaritik

kanpoko zenbait ere, harategian saltzen duen okelaren kalitatea gaitik. 50 urtean ibili da negozio horretan lanean, baina etapa hori amaitzear dago; datorren urteko otsailean erretiroa hartuko du.

Ondorioz, tankera horretako komertziorik barik geratzeko arriskua du Mañariak, eta udalak aurrea hartu gura dio egoera ho-

rriri. Denda erosi eta bere kudeaketa esleituko du.

"Herrian ez dago beste dendarik, eta oinarrizko zerbitzua dela deritzogu. Nagusientzat, esaterako. Herriari bizia ematen dio eta etorkizunean horrelako denda bat egongo dela bermatu gura dugu", adierazi du Ainara Otxotorena Mañariko alkateak.

Urtea amaitu aurretik gai honi buruzko saio parte-hartzaile irekiak antolatzeke asmoa du udalak. Saio horien bitartez, herritarren ekarpenak jaso gura dituzte: dendan zer aldatu edo gehituko luketen, zer mantendu... Prozesu horretako ekarpenak baloratu ostean erabakiko dute lizitazioa zelan egin.

## 50 urteko bidea

Rafa Bizkarraren aitak 1968an zabaldu zuen denda, gaur egungo kokapenaren ondoan dagoen beste lokal batean. Rafa handik urte bira hasi zen bertan lanean, 1970ean. Hasieran harategia baino ez zen, eta gerora gehitu zituen denda. Lokala txiki geratu zitzaion, eta leku handiago baten bila hasi ziren negozioa handitzeko. 1985ean lekualdatu ziren gaur egungo tokira.

**Rafaren aitak 1968an zabaldu zuen denda, ondoko lokal batean; 1985ean aldatu ziren gaur egungo tokira**

Mende erdiko dedikazioa "nekagarria" dela dio Bizkarrak eta atsedean hartu gura du. Udalak egindako ahalegina denda bizirik eta martxan mantentzeko albiste ona iruditzen zaio. "Ideia ona dela uste dut, herrian ez dagoelako horrelako beste dendarik", azaldu du.

Erreleboa "ilusioa" duen eta "negozioa eramaten dakien batek" hartzea gustatuko litzaioke. "Orduan pozik egongo nintzakete", dio. Erreleboa hartzen duenari ahal duenean laguntzeko prest dagoela dio.

# Izurtzako Udalak datozen hileen barruan hasi gura ditu espaloia egiteko lanak

Inguruko bizilagunen eta oinezkoen segurtasuna hobetzea da espaloi berrien helburua



Espaloietariko bat irudiaren ezkerreko aldean joango da.

## IZURTZA • J.D.

Oinezkoen segurtasuna hobetzeko egitasmoaren barruan, Izurtzako Udalak espaloi tarte bi eraiki gura ditu herrigunetik Antonio Txiki okindegira doan errepide zatiaren ondoan. Horretarako, pribatuak diren lur horien jabetza eskuratzeko ahaleginetan ibili da. Batzuekin akordioa lortu du, baina beste lurjabe batzuekin ez, eta nahitaezko desjabetzearen bidea hartu du. Joan zen asteko udalbatzarrean aho batez onartu zuten erabakia.

Izan ere, ahalik eta lasterren hasi gura dituzte lanak. Proiektua gauzatzeko, diru laguntza bat eskatu dute eta lanei aurre ekin behar diete laguntza hori ez galtzeko. Gainera, Lorea Muñoz alkateak dio "oso garrantzitsua" dela proiektua ahalik eta azkarren aurrera era-

matea, "autoak abiadura handian" dabiltzalako eta "oinezkoen segurtasuna handitu" gura dutelako.

Errepidearen alde batean badago espaloia Durango, Izurtza eta Mañaria lotzen dituen, baina beste aldean ez dago antzerako azpiegiturarik. Horrela, Mañariko noranzkoan ezkerreko aldean joango dira espaloi tarte berri horiek. Euretari bat, esaterako, Antonio Txikiren parean —bidearen beste aldean— hasiko da, eta Megavideo enpresa zegoen tokiraino helduko da, gutxigorabehera. Espaloi berriagaz, inguru horretan bizilagunen segurtasuna hobetzea gura dute.

Gune horretan, semaforoak eta zebra-bideak ere ipiniko dituzte oinezkoen errepidearen alde batetik bestera igarotzea errazteko.

**Semaforoak eta zebra-bideak ere ipiniko dituzte, bidea seguruago zeharkatu ahal izateko**

## Argazkilaritzari buruzko berbaldia interneten jarraitzeko aukera, Mallabian

### MALLABIA • J.D.

Informazio eta komunikazio teknologiei buruzko berbaldi zikloa argazkilaritza mugikorren buruzko bategaz amaituko dute Mallabian. Interneteko youtu-

**Euskarazko berbaldia irailaren 29an izango da, eta gaztelaniazkoa urriaren 1ean**

be kanal batean (KZguneaTIC) jarraitu ahal da zuzenean. Euskarazko saioa irailaren 29an izango da, 18:00etan, eta gaztelaniazkoa urriaren 1ean, hori ere 18:00etan. Ordu erdiko saioak izango dira. Berbaldiak youtuben ipiniko dituzte.



ANBOTO

## Hareek denporak!

# COVID-AREN AURREKO JAIK: URTE LUZE BATEN KRONIKA

Pandemiak ikusmena ere lausotu digula dirudi. Iazko San Migeletako argazki honetatik urte mordo pasatu dela ematen du. Baina 365 egun baino ez dira igaro. Hori bai, tartean pandemia bat dugu. Gauza askoren fata sumatzen hasi gara. Txosneta-ko barra ugerrean ukondoa ipintzea, kontzertu jendetsu bateko usaina, erromeria

giroa, aspaldiko lagunekin jaien bueltan elkartu eta besarkada estua ematea, irrintzi bat, txapligo batzuen bolbora usaina, selfie bat, eta bi, eta hiru eta lau, Donien Atxa jasotzeko ingeniari papera hartzen duten adituak, ogitartekoa beti patata tortilagaz, zein ordutan irtengo zara barratik?, puntapixo bat... hau zerrenda amaigabea...

## Politikan

Garazi  
Errasti Silloniz  
EH Bildu



### Emakumea eta kirola

Durango emakume kirolari eta taldeek egunerokotasunean berebiziko presentzia daukate gurean, baina uda sasoi honetan presentzia hori areagotu egin da, hainbat ekimen esanguratsu izan baitituzte.

Oztopoak oztopo, Bizkaia-Durango taldeko txirindulariek hainbat lasterketa izan dituzte azken aldian COVID-19a lagun dugularik. Horren adibide, oraintsu parte hartu duten azkena; Italiako Giroa. Aurretik, Frantziako La Course by Le Tour lasterketan parte hartu zuten, hirugarrenez. Irail hasieran, Saskibaloiko Euskal Kopako anfitrioi izan zen Durango, emakume kirolari ugari batuz. Eta azkenik, Kultur Aro ekimenaren egitarau barruan Kirole-neren eskutik 'Harria Herria' dantza bertikala praktikatzeko emakumeen film laburra ikusgai izan dugu San Agustin Kultur Gunean.

Pozgarria da Durangoren moduko herri batean emakumeek kirolean leku garrantzitsu bat izatea, kirol femeninoari bultzada eman, eta gero eta ekintza gehiagotan lekua utziz.

Gizarteko esparru denetan da garrantzitsua emakumeen presentzia, baina kirolean are gehiago. Kirolaren bitartez lidergotzarako ahalmen eta erreferentziak lortzen dira, eta emakume gazte zein helduak kirolean erreferente izateak gizartean pairatzen dugun genero desberdintasuna gutxitzen laguntzen du, emakumeak ahaldunduz.

Durango EH Bilduko kide modura, erabateko apustua egiten dut luzea den bidaia honetan. Horrela jarraituz gero, lortuko dugu emakumezkoen kirolaren bultzadari buruzko iritzi artikulu gehiagorik idatzi beharrik ez izatea. Zorionak, neskek!

## Durungaldea asteen

### Enpresek eta Amankomunazgoak akordioa sinatu dute ekonomia suspertzeko

**Durango** | Amankomunazgoak eta Durungaldeko Enpresarien Elkarteak enplegua eta ekonomia suspertzeko ituna sinatu dute asteen. Hiru dira aurrerantzean landuko dituzten lan ildoak. Enpresak sortzeko prestakuntzak eskainiko dituzte. Ekintzailetzaren Nazioarteko Eguna (apirilaren 16a) elkarregaz ospatuko dute, eta ikusgarritasuna emango diete Durungaldeko enpresei.

### Pandemia sasoiak sukaldeak eta jangelak zabalik mantentzeko gida kalean da

**Durungaldea** | Bertan Bertokoa dinamikak protokolo bat kaleratu berri du COVID-19aren sasoi honetan sukaldeak eta jangelak zabalik mantentzeko. Txostenean, jangelak zabalik mantentzearen garrantziaz eta hauetan hartu beharreko segurtasun neurriez berba egiten dute. Gida osoa [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean dago ikusgai.

### Zornotzako Udalak diru laguntzak kaleratu ditu eskola materiala erosteko

**Zornotza** | Udalak 30.000 euroko diru partida bat ipini du umeak eskolarako adinean dituzten herritarrei laguntzeko. Diru laguntzak eskuratzen dituztenek, Zornotzako dendetan egin beharko dituzte erosketak. Diru laguntzarako eskariak Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan egin behar dira. Eskarietarako epea urriaren 31ra arte dago zabalik.



### Merkatariei eta zerbitzuen sektoreko kideei Euskaraldian parte hartzeko deia egin diete

**Durungaldea** | Durungaldeko Amankomunazgoak dei berezia egin die enpresei eta, batez ere, merkataritza eta zerbitzu arloetako establezimenduei, Euskaraldiaren bigarren edizioagaz bat egin dezaten. Euskaraldia azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo den gizarte arloko ekimena da.

Eskualdeko merkataritzaren eta zerbitzu jardueren partaidetza bultzatzea da Amankomunazgoaren helburua. Hori dela eta, Mankomunitateak bigarren edizio honetan parte hartzera eta irailaren 27a baino lehen izena ematera animatu du sektore osoa.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

merkataritza  
gida sarean

[anboto.org/gida](http://anboto.org/gida)



Ezagutu eta erabili Durungaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902  
Argazkiak - Datuak - Kokapena  
(urtean 50€)

# BURUARI KLIK!




# TOPATU ITZAZU

Beheko irudian zazpi urtxintxa daude ezkutatuta.




# DOMINOA

Marrastu itzazu  
falta diren irudiak  
lauki zurietan.



# SUDOKUA

Bete itzazu beheko irudiekin  
sudokuan hutsik dauden laukiak.



# ZEIN DA ZEIN?

Perretxiko bakoitzari bere itzala dagokio.

1



2



3



4



5



6



7



8



9



10



11



12





# TXIKITIK HANDIRA



Topatu itzazu 8 diferentziak

# DIFERENTZIAK



# IRUDI ENGAINAGARRIAK



Zazpi zati hauetatik bost beheko iruditik hartuta daude. Zeintzuk?



# LABIRINTOA

---

Topatu bidea hartza bere kobara heldu  
dadin negua hasi baino lehen.



# ESKULANA

Batu itzazu hosto sikuak eta itsatsi kirikinoaren gainean. Alboko irudian adibide bat daukazu. Gero margotu irudia.





# ANBOTOREN LAGUNAK

Euskarazko hedabideok mundua ikusteko modu propioa dugu, euskaratik eta euskaraz.

Orain, gure komunitatearen konpromisoa inoiz baino beharrezkoagoa dugu aurrera egiteko, euskarazko eta kalitatezko kazetaritza egiten jarraitu ahal izateko. Izan ere, bizi dugun egoera ekonomikoagaz **ANBOTO**ren jarduna kinka larrian dago.

Jarri ezazu zure alea euskarazko informazioa sortzen eta garatzen jarraitu dezagun, Durangaldea ezagutzen, bertan gertatzen denaren berri ematen eta gure ikuskera zabaltzen jarraitu dezagun.

## ***ANBOTOren laguna izan gura duzu?***

Urtean **30 euro** ordainduta, **ANBOTO** komunikazio proiektuari sostengua emango diozu.

**Bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org)**

**Deitu: 94 681 65 58**

**Bete formularioa: [www.anboto.org](http://www.anboto.org)**





## Break on Stage

DANTZA  
BILBO : Irailak 26

### Kultura urbanoa oholtzara

Koronabirusak eragindako egoerara moldatuta, kultura urbanoaren jaialdiak Bilbao Arena izango du agertoki aurtent. Besteak beste, Last Squad (iazko txapeldunak) eta Circle of Trust break dance taldeak,

Indala eta Breathless urban dance taldeak, BMXeko Diego Solans eta Dani Cortadi, eta Alex Conga eta Ruben Dóniga scooter riderrak arituko dira 18:00etan hasiko den ikuski-zunean.



## Zinea

### :: Durango ZUGAZA

• **Black Beach**  
barikua 25 19:30/22:00  
zapateria 26: 19:00/22:00  
domeka 27: 19:00  
astelehena 28: 18:00/20:30  
martitena 29: 19:30  
eguztana 30: 19:00

### • Greenland: El último refugio

barikua 25: 19:30/22:00  
zapateria 26: 19:30/22:00  
domeka 27: 19:30  
astelehena 28: 18:00/20:30  
martitena 29: 20:00  
eguztana 30: 19:30

### • La Diosa Fortuna

barikua 25: 19:30/22:00  
zapateria 26: 19:30/22:00  
domeka 27: 19:30  
astelehena 28: 18:00/20:30  
martitena 29: 20:00  
martitena 30: 19:30

### • Jardín secreto

zapateria 26: 17:30  
domeka 27: 17:30

### • Vicky Vikingo

zapateria 26: 17:00  
domeka 27: 17:00

### :: Elorrio ARRIOLA

### • Papicha, sueños de libertad

zapateria 26: 22:00  
domeka 27: 20:00  
astelehena 28: 22:00

### :: Zornotza ARETOA

### • La boda de rosa

barikua 25: 20:15  
zapateria 26: 20:00  
domeka 27: 20:00  
astelehena 28: 20:15

### • Bonnie Bears

zapateria 26: 17:00  
domeka 27: 17:00

### Irailaren 26an

**ABADIÑO urteurrena**  
Katalamixon elkartearen  
**5. urteurrena: Taberna ibiltaria** 18:30ean, Probalekuan. Euskal kantuez gozatzeko aukera.

**DURANGO musika**  
**'Matraka ma non Tropo' (Trakamatraka)**, 17:00etan, Aurora Abasolo parkean (euria eginez gero Kurutziaga ikastolan).

**DURANGO erakustaldia**  
**Street Show kirol erakustaldia**, 18:00etan, San Jose Maristak ikastetxean.

**DURANGO film eszenikoa**  
**'OYMYAKON. Habitación 101' (Khea Ziater)**, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

**ZORNOTZA dantza**  
**Maria Berasarte**, 19:30ean, Etxanoko Andra Maria elizan. Eleizatan egitarauaren barruan.

### Irailaren 27an

**ABADIÑO urteurrena**  
Katalamixon elkartearen  
**5. urteurrena: bideo emanaldia**, 12:00etan, Errota kultur etxean. Egindako ibilbideari buruzko bideoa aurkeztuko dute.

**DURANGO ipuinak**  
**'The Far West' (Kids&Us)**, 12:00etan, San Fausto auzoan. Euria eginez gero Plateruena kafe antzokian.

**DURANGO bertsoak**  
**Bertso saioa: Andoni Egaña, Onintza Enbeita eta Gorka Pagonabarraga**, 13:00etan, Kurutziaga ikastolan. Gai jartzailea: Durangoko Bertso Eskola.

**ELORRIO antzerkia**  
**'Soy Ellas' (Rojo Telon)**, 18:30ean, Plazaren alboko parkinean.

**ZORNOTZA musika**  
**Maria Luzuriaga eta James Findlay**, 12:30ean, Dudaeko San Migel elizan. Eleizatan egitaraua.

### Urriaren 1ean

**DURANGO musika**  
**Gontzal Mendibil**, 19:00etan, Landako Gunean. Pertsona Nagusien Nazioarteko Egunda dela-eta.

**ZALDIBAR dokumentala**  
**Mendi Tour Festival: 'Nebula' + 'The Undamaged'**, 18:30ean, Liburutegi Zaharrean. 2019ko Mendi Film Jaialdia.

### Urriaren 2an

**ELORRIO dantza**  
**'Otsoa' (Proyecto Larrua)**, 20:30ean, Arriola antzokian.

**ZORNOTZA antzerkia**  
**'Kotondarrak' (Anita Maravillas)**, 20:15ean, Zornotza Aretoan.

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

### Urriaren 3an

**ELORRIO tailerra**  
**'Elikadura kontzientea'**, Iturri kultur etxean. Urriaren 3an eta 31n (10:30-14:30/15:30-19:30), Miriam Herbón Ordoñezek dinamizatuta. Izen-ematea irailaren 25era arte.

**ZORNOTZA antzerkia**  
**'Kotondarrak' (Anita Maravillas)**, 12:00etan eta 18:00etan, Zornotza Aretoan.

### Urriaren 4ra bitartean

**DURANGO erakusketa**  
**'Sorgiñak'**, Arte eta Historia Musean.



**Azkeneko  
aukerak**

## IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

**Tel.: 946 816 673**  
**[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)**

# “Ibilbide propioa lantzea eta beste musikari batzuekin aritzea uztartu gura dut”

Irati Bilbaok Errabal (Gaztelupeko Hotsak) jazz zigiluagaz kaleratu du 'Begin', bere lehenengo diskoa

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Lau urteko fasea diskoa kaleratuta borobildu du Irati Bilbao duran-garrak. Urtebeteko epean disko bitan parte hartu du, eta kontzertu batzuk eskaini ahal izan ditu, pandemia betean egonda ere. 'Begin' diskoa, Saltsanen eta Artekan erosi daiteke, eta laster plataforma digitaletan egongo da entzungai.

Zeren hasiera da 'Begin'?

Musikenen emandako lau urte hauek oso garrantzitsuak izan dira niretzat. Aldaketa bat izan da, eta hauxe da emaitza. 2020ra-ko nituen ilusioetatik, eutsi dion bakarra izan da diskoarena. Ez da kontzertu eta festibalik egin, ikasturte amaierako errezitala ere bertan behera geratu zitzaidan...

Diskoaren grabaketan parte hartu duten musikariek lau urtean egon naiz Musikenen, eta martxotik ez ditut gehiago ikusi. Buelta asko eman nizkion buruari *Begin* izena ipintzea erabaki aurretik. Gustatuko litzaidake hurbileko etorkizun batean proiektuagaz jarraitu ahal izatea, koronabirusak dena baldintzatu du eta. Amaiera bat izan da, baina neurri batean hasiera bat ere bada, beste sasoi batzuk etorriko direlako. Baikorragoa naiz orain.

Zer gura izan duzu transmititu diskoan?

Denerik dago. Orain artean ez naiz konposatzera larregi ausartu, baina azken urte bietan animatu naiz. Abesti batzuk zirriborro zaharrak ziren, eta azken urteetan ikasi dudanari eskerrak, nik gura nuen

bidetik eraman ahal izan ditut. Taldekideok elkarregaz asko jo dugu lau urteotan, eta abestiak asko hazi dira.

Askok kostatu zaizu bakarkako abestihoriek publikatzea?

Bai, asko kostatu zait. Txikitan flauta jotzen nuen, bandagaz, eta oso gustura aritzen nintzen, baina bakarrik aritzea ez nuen hain

“

**Errabal zigilu txikia da, baina espezializatua, eta pozik nago eurekin”**

—

gustuko. Abesten hasi nintzean, hori ere asko kostatu zitzaidan, protagonista izatea. Azken finean, hor aurrean dagoena da abeslaria. Oholtzagaz maitasun eta gorroto hartu-eman bat dut; oso ondo pasatzen dut taula gainean, baina badut lotsa puntu bat ere.

**Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen Errabal adarragaz kaleratu duzu diskoa.**

Oso pozik nago, eta harro. Aurretik ezagutzen nituen, Durangoko Azokan urtero joaten naiz euren mahaira eta. Euskal Herriko jazz erreferentziatariko asko eurek ateratzen dituzte. Nire irakasle batek ere eurekin kaleratu du bere lana, eta nire diskoa berearen alboan edukitzea ohore bat da. Zigilu txikia da, baina espezializatua, eta hori pozgarria da.



Irati Bilbao Gandarias

Abeslaria Durango | 1992

GORKA IRAUNDEGI

Zein gustatuko litzazuke izatea 'Begin'-en ibilbidea?

Zerbait grabatutakoan, musikari guztiok lan hori zuzenean erakutsi gura izaten dugula esango nuke, are gehiago jazz munduan gabiltzanok. Gure kasuan, oso garrantzitsua da inprobisazioa, ez soloengaitik bakarrik, baizik eta musikarion artean sortzen denagaitik. Baina azpimarratu gura nuke ikaragarri gustatzen zaidala beste jende batez abestea eta musika sortzea; hori uztartzea gustatuko litzaidake, nire bidea egin bitartean beste jende batez ere konpartitzea nire bizipenak.

**Udan eskaini duzu kontzerturen bat.** Plateruenean Ekururen diskoa aurkeztu genuen. Arraroa izan

“

**Oholtza gainean ikusi nuen benetan zenbat igarri nuen zuzenekoan falta”**

—

zen, hiru hilabeteen entseatu barik egon eta gero han aritzea. Bilboko Guggenheimeko terrazan beste kontzertu bat eskaini genuen, eta hori itzela izan zen; jazz kontzertu sorta bat izan zen. Oholtza gainera berriro igo nintzenean ikusi nuen benetan zenbat igarri nuen zuzenekoan falta. Hirugarren kontzertu bat ere

eskaini nuen gero. Orain arteko azkena.

**Ekuragaz ere kaleratu duzu diskoa.** Diskoaren aurkezpena bertan behera geratu zen, itxialdi betean geunden eta. Uste genuen ez genuela emango, baina azkenean aukera sortu zitzaigun Uda Kulturaz Blai zikloan. Segurtasun neurriengaitik-eta, ez da betiko sentsazio berdina, baina ondo egon zen.

**Hainbat proiektutan parte hartzen duzu. Non moldatzen zara ondoen?**

Beti daude erosoago nagoen gauzak, baina erronka berriak edukitzea da politena nire ustez. Nik idatzitakoa abestea oso ondo dago, baina beste estilo batera moldatu behar naizenean ere asko disfrutatzen dut.

**hitz** liburutegia

artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburutegia.com

#salduenak

1<sup>o</sup> **AITAREN ETXEA** KARMELE JAIO (Elkar)

2<sup>o</sup> **MIÑAN** Amets Arzallus & Ibrahima Balde / Susa (Elkar)

3<sup>o</sup> **IBAIERTZEKO IPUINA** Oihane Amantegi (Elkar)

Eskera WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

**Bertako +, kalte ekologiko -**  
Lortu erosketa-sorta bat!  
Entrega-puntuak

Madalena plaza: Irailaren 10ean eta irailaren 24an  
10:00 - 13:00 / 17:00 - 20:00

Ezkurdi plaza: Irailaren 17an eta urriaren 1ean  
10:00 - 13:00 / 17:00 - 20:00

\*500 pack banatuko dira egun bakoitzeko.

**Kanpainaren oinarriak:**  
Kanpainaren abarrazioa erabakitzen duen 50% gaitzak lehiatzen diren bakoitzak gaitza erabakitzeko aukerarekin batera. Kanpainaren abarrazioa erabakitzeko aukerarekin batera. 2020ko maiatzaren 1etik irailaren 31era bitartean erabakitzeko aukerarekin batera. Erabakitzeko aukerarekin batera. Erabakitzeko aukerarekin batera. Erabakitzeko aukerarekin batera.

**www.dendakbai.eus**

f i y Dendak Bai 686 738 102 www.dendakbai.eus





## “Plazera izan da Gorkaren hogeituro urteko eraldaketa fisiko eta emozionala antzeztea”

HBOk irailaren 27an estreinatuko du 'Patria'; Eneko Sagardoy da protagonistetariko bat

ZINEMAGINTZA • ARITZ MALDONADO

**Eneko Sagardoy aktore durangarra Donostiako Zinemaldiaren zurrubiloan murgilduta dabil egunotan. 'Patria' telesailaren estreinaldiak ikusmin handia sortu du, baina ez da durangarrak aurkeztuko duen lan bakarra. Eguenean 'Hil kanpaiak' estreinatu zuen.**

### Zelan doa Zinemaldia?

Sentsazio aldetik, pentsatu baino normalagoa izan da dena, eta hori egundoko lana egin dutelako da. Donostiako Zinemaldia egitea oso

garrantzitsua da gure industria-rentzat. Ez da jaialdi bat egitea bakarrik. Pelikulak kokatzeko gune bat ere bada; Zinemaldian jasotako iritzi eta kritikek eragin zuzena dute pelikulak gero zinema-aretoetan edukiko duen arrakastan. Oso erakusleho garrantzitsua da. Gainera, beste alde batetik, nire ustez adibide argi bat da pandemia egoera honetan ere bizi kalitatea mantendu daitekeela, beharrezko neurriak hartuta. Hau da, segurtasun osoko sentsazioa bizi dugu bertan, gizalege

osoa, eta jendearen aldetik ere eskuzabaltasuna nabari da. Igartzen da hile askoan lanean gogor aritu den lantalde baten eskuetan gaudela. Veneziako jaialdia ere egin zen honetaz aparte, baina auskalo zer gertatuko den datozen hiletan. Orduan, benetan txalotzekoa da egin duten lana, ikaragarria da. **Zelan 'Patria' telesaillean, Gorkaren azalean?**

Asko disfrutatu dut pertsonaiaz, gauza askotan antzeokoak garelako. Horrez gainera, plazera izan da hogeituro urteko denbora tar-

tean zehar, momentu desberdinetan, pertsonaia hau antzetzu ahal izatea. Pertsonaiaren eraldaketa fisikoa eta emozionala izugarria izan da. Gainera, HBO lako ekoiztetxe batentzat, eta mimo handiz egindako lan batean izanda.

### Zelakoa izan da horrelako produkzio batean parte hartzea?

Plataformaren apustu handia izan da, Espainiako sorkuntzan edo produkzioan lehenengo urratsak emateko. Niretzat, filmazioan gauzak ez dira aldatu; grabatzerakoan, nik ez nuen buruan domekatik aurrera 70 herrialdetan ikusiko gintuztenik. Filmazioa orain urtebete egin genuen, eta lanerako ohiko gauzak erabili genituen. Kontsumitzailea naizen aldetik, badakit zer dakarren HBOk. Badakit zer prestigio daukan, eta zein

ikusgai egongo garen. Horrek beldur puntu bat ematen du, baina, beste alde batetik, zein zorteduna naizen pentsatzen dut, horrelako erakusleho handi batean egoteko aukera edukitzeagaitik.

**Ikusmin handia sortu du 'Patria'-k.** Prentsa mugimenduagaitik igartzen dugu hori. Ikaragarria izaten ari da, eta kritika ikaragarriak izan dira hedabide handietan, eta horrek seinale bat ematen digu. Kazetari alemaniar bi hunkituta etorri zitzaizkidan Patriaren emanaldi baten ostean, zortzi kapituluak ikusi eta gero, eta badirudi hemendik kanpora ere ulertu dutela, eta barrura heldu zaiela, beraz.

**“Grabatzerakoan, nik ez nuen buruan domekatik aurrera 70 herrialdetan ikusiko gintuztenik”**

### 'Hil kanpaiak' ere estreinatu duzu Zinemaldian.


*New Directors* atalean estreinatu da. Oso hunkitua nago. Imanol Rayoren bigarren pelikula da, eta lehenengoaren estiloa mantendu du. Berak gura izan duen pelikula egin du, bere estiloari muzin egin barik, eta hautatua izatea lortu du. Pelikula oso pertsonal batean parte hartzea ez da egunero gertatzen den zerbait, eta horregaitik oso harro nago. Estreinatzeko gogo izugarria eduki dut.

## Gai librean

### Sasi guztien gainera...

Irailaren 4an inauguratu genuen *SORGINAK!* erakusketa arrakasta handia izaten ari da. Antolatu ditugun ekintza guztiak bete dira, eta berriak antolatzen baditugu ere, hauek egun bakarrean betetzen dira. Kultura gosea ote da? Gaia interesgarria ote da? 42 emakume artistaren lanak erakusketa bakarrean ikustearen zirrara ote da? Agian hirurak batera, baina emaitzarekin oso pozik gaudela ezin dugu ukatu.

**Kultura gosea dago. Argi geratu da zeinen garrantzitsua den kultura gure bizitzetarako**



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo  
Durangoko Museoa

Kultura gosea dago. Argi geratu da zeinen garrantzitsua den kultura gure bizitzetarako, itxialdian gehien kontsumitu duguna da, eta orain, kalean egon ahal dugula, hainbat oztopo izanda ere, kultura kontsumitzeko gogo eta beharra hor dago.

**Historiak gure akatsetatik ikasteko balio duela diote, baina hori ere ez dakigu ondo egiten**

Gaia interesgarria da, argi dago. Sorjin ehizak 250.000 emakumeren hilketak ekarri zuen XV. eta XVIII. mendeetan Europan. Emakume askea, zenbait gaitan aditua izate hutsagatik eraila. Sistema patriarkal baten zehaztutako bizitzatik at bizi nahi izanagatik sutara kondenatuak. Aspaldiko istorioak al

dira? Hitz hauek, tamalez, inoiz baino biziago daudela uste dut nik. Historiak gure akatsetatik ikasteko balio duela diote, baina hori ere ez dakigu ondo egiten.

42 emakume artistaren lanak erakusketa bakar batean ikusi ahal izana luxuzko gauza bat da gaur egun. Hemen ere emakumeak beti bigarren plano batean bizi izan direlako. Emakume artistak isilaraziak izan dira. Bada garaia beraian lana ikusgai jartzeko. Ohikoa izan beharko litzateke 2020. urtean emakumeen lanak biltzen dituzten erakusketak ikustea, eta hau ere oraindik fikzioa dirudien gai bat da. Sasi guztien gainera egindako erakusketa bat izan da hau eta horregaitik ari da horren arrakasta handia izaten. Oztopoei aurre egiteko garaia da. Kulturaz gozatzeko garaia, emakumeen kontrako indarkeria deuseztatzeko garaia eta emakume artisten lana ikusgai jartzeko garaia.

# Bizkaia-Durango taldeak aurpegia eman du Giro Arrosan eta gustura bueltatu dira egindako lanagaz

Nadine Gill alemanak hogeit onenen artean sailkatzea lortuko zuen haize-babes batean galdutako denboragaitik izan ez balitz; Alice Arzuffi italiarra ere borrokalari ibili da



Bizkaia-Durango taldeko txirrindulariak Giroko etapa batean.

**TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO**  
Bizkaia Durangoko kideak gustura bueltatu dira Giro Arrosan egindako lanagaz. Beste behin, Continental mailako taldeak aurpegia eman du munduko probarik garrantzitsuenan, eta Nadine Gill txirrindulari alemanagaz 20 onenen artean sartzeko borrokan ibili da.

Gill-ek 28 urte ditu, baina esperientzia gutxi du txirrindularitzan. Aurtengoa du lehenengo denboraldia UCI mailako talde batean. Falta ez zaiona sasoia da. "Hauspogalanta du", dio Agurtzane Elorriaga taldeko zuzendariak, eta horri eskerrak 20 onenen artean sailkatuta egon da Giroko hainbat etapatan. Haize-babes batean moztuta geratu izanak ekidin dio eskura zuen helburua lortzea.

Hala ere, itxaropena izateko moduko txirrindularia da aurrera begira. "Oso dohain onak ditu bizikletarako", Elorriagaren esanetan.

Horren adibide da Giroko etaparik gogorrean 18. tokian amaitzea lortu zuela.

Alice Arzuffi izan da taldeko beste protagonistetariko bat. Italiarra borrokalari ibili da ihesaldietan.

**Azken hamarkada bietan, Bizkaia-Durango ia urtero parte hartu du Giro Arrosan**

**Gill-ek "oso dohain onak" ditu bizikletarako, Agurtzane Elorriaga zuzendariaren esanetan**

tan sartu guran. Beraz, euren maila eman dutela uste du Elorriagak. Azken 20 urteetan, Bizkaia-Durango ia urtero parte hartu Giro

Arrosan, eta hori azpimarratzekoa da. "Parte hartzea bera garaipen bat da guretzat", dio.

Aurtengoa ezohiko Giroa izan da. "Txirrindulari onenei begira, beharbada gogortasun puntu bat falta izan zaio, Mortiroloren moduko mendate bat, baina gainerako ziklistentzak gogorra izan da, azkenengo txirrindulariek helmugara heltzeko zuten tartea laburtu egin dutelako". Antolatzaileek zorrotz jokatu dute horretan, eta 52 ziklistek ez dute Giroa amaitu denboratik kanpora heltzarren.

**Hurrengo hitzorduak**

Aurrera begira, Espainiako Kopako lasterketa izango dute hurrengo hitzordua, urriaren 4an. Kopan Lizzy Holden britainiarrak eta Lucia Gonzalez asturiarrak lan ona egin dezaketela uste du Elorriagak. Gero, nazioarteko egutegian murgilduko dira.



Urien eta Alonso bigarren sailkatu dira.

## Urienek bigarren postua lortu du Espainiako Txapelketan

Igor Urien abadiñarra eta Gabriel Alonso argentinarra bigarren sailkatu dira Espainiako Txapelketako erresistentzia proban

**AUTOMOBILISMOA • M.ZUAZUBISKAR**

Asteburuan Jerezen jokatu Espainiako Erresistentzia Txapelketan, Igor Urien abadiñarrak bigarren postua lortu du. Bikoteka lehiatzen den diziplina da erresistentziakoa, eta Urienek Gabriel Alonso argentinarragaz batera parte hartu du. Urien "pozik" dago lortutako emai-

tzagaz. "Gabrielek kotxe berria erosi du eta horregaz lehiatu zen. Oraindino ez da auto horretara moldatu, eta itzuli bakoitzean 8 bat segundo galtzen zituen. Egia esan, ez nuen espero postu hori lortzea, prestazio aldetik urrun ikusten nuen eta. Beraz, emaitzagaz pozik nago", esan du pilotu abadiñarrak.

## Ruben Gorospek ordu biren barruan igo du Tourmalet bizikletan atzerantz

**BIZIKLETA • J.D**

Osasun krisian gehien sufritu dutenen omenez, Ruben Gorospek Tourmalet bizikletan atze-

rantz igo zuen joan zen domekan. 1.50.27ko denboran egin zituen 16 kilometroak, 8,6 kilometro orduko batez bestekoa lortuta.



Ruben Gorospe Tourmalet tontorrera heltzen. [WWW.JULENURIBE.COM](http://WWW.JULENURIBE.COM)



# "Inoiz baino jaitsiera hobea egin nuen; arriskatu eta ondo irten zitzaidan"

Sorginen Lasterketako marka ia minutu bian hobetu du Gontzal Murgoitio elorriarrak



Gontzal Murgoitio Axpeko helmugara heltzen, joan zen zapatuan. MAIALEN ZUAZUBISKAR

## KORRIKA • JOSEBA DERTEANO

Joan zen asteburuko Sorginen Lasterketak protagonista bat izan zuen beste guztien gainetik: Gontzal Murgoitio 19 urteko elorriarra. Proba irabazi ez ezik, iaz Imanol Goñik ezarritako marka (1.39.40) ia minutu bian hobetu zuen: 1.37.53. "Dena ondo irtetzen den egun horietariko izan zen: hankak ondo, triapak ere bai, burua argi... lasterketa borobila irten zitzaidan", azaldu du Aiaramendi taldeagaz aritu zen korrikalariak.

Goñi lehenengo tokian eta bakarrik igaro zen Anbototik, eta minutu bateko alde ateratzen zion Murgoitiori; baina aldapan behera

alde osoa jan zion, eta, tarte tekniko amaitu zenean, aurreratu egin zuen. "Beti ondo moldatu izan naiz aldats behera, baina inoiz baino jaitsiera hobea egin nuen; arriskatu eta ondo irten zitzaidan", esan du. Ondoren, badaezpada ez zuen erritmoa moteldu, eta inondik inora itxaroten ez zuen marka ezarri zuten helmugan. "Ez nuen espero. Zelako maila zegoen ikusita, lehe-

**"Zelako maila zegoen ikusita, lehenengo bosten artean sartzea itzela izango zela uste nuen"**

nengo bosten artean sartzea itzela izango zela uste nuen, eta 1.45etik jaitsiera nuen helburu", gaineratu du.

Emakumeetan Onditz Iturbek irabazi zuen Sorginen Lasterketa, Oihana Azkorbebeitiaren eta Ezti-zen Duqueren aurretik.

## Hurrengo hitzorduak

Axpen ikusi zenez, Murgoitio sasoiari dago aurretik datozen errorekei aurre egiteko. Urriaren 15ean Espainiako Trail Txapelketan arituko da, Sorian. Lehenengo bien artean amaitzen badu, azaroan Lanzaroten lehiatuko den munduko txapelketarako sailkatuko da.

# Frontenisa ikusgarriago egiteko, gehienez minutu biko tantoak izatea erabaki dute Mallabian

Tanto luzeegiak ekiditeko arauak emaitza onak eman ditu eta beste txapelketa batzuetan kopiatu egin diete



Binakako torneoak Eloy Gonzalez burgostarrak eta Jesus Dominguez nafarrak irabazi zuten.

## FRONTENISA • J.D.

Mallabiko torneoak estatuko frontenislariarik onenetarikoak batu zituen joan zen asteburuan. Urterik urtera ospea irabazi duen txapelketa da, hein batean ikusgarritasuna handitzeko egiten duten ahaleginagaitik. Adibide moduan, honako araua: tantoek minutu biko iraupena izan dezakete gehienez. Tarte horretan amaitu ez bada, sarea errestatu duenarentzat da tantoa.

Orain hiru urte ezarri zuten arau hori tantoak gehiegi luzatzen zirela ikusita. "Behin, partidua bat hasi eta segituan, bazkaltzera joan nintzen. Ordu erdira itzuli

nintzen eta bana zihoazen. Hasieran ezohiko zerbait gertatu zela uste nuen, baina ez, tantoak oso luze zihoazen, besterik barik. Zerbait egin beharra zegoela pentsatu nuen, ikusleek alde egiten zutelako frontoetik", gogoratu du Juan Carlos Perez txapelketako antolatzaileetarikoa batek. Orduan okurritu zitzaizkien ideia.

Hasieran, parte-hartzaileak "harritura" geratzen ziren neurriagaz, baina orain "ondo ikusten dute". "Nik dakidala lehenengoak izan ginen horrelako arau bat jartzeko. Gerora, Sorialuzeko txapelketan berdina egin dute", adierazi du Perezek.

## Jokaldia

### Maskara aire librean

Zuen baimenarekin, behingoagatik behintzat kirol kontuak aparte utzi eta maskarari buruz eman nahi nuke iritzia. Badu zentzunik aire librean maskara ipintzeak inguruan inor ez badugu? Bide txo batean paseatzen gabiltzala, banku batean bakar-bakarrik jesarrita gaudela edo ortu inguruan karretilla garraiatzen gabiltzala? Batez ere zaharrak ikusi ditut halako kasuetan, bero ikaragarriarekin ere bai, batzuk ia ezinean. Derrigorrez ipini behar dugu maskara, segurtasun tarte egon zein ez, eta horixe dioskue telebistatik agintari eta tertuliakide orok jakile askok, aire librean ere ipini behar dugula, birusa lau haizetara ez zabaltzeko. Eurek, baina, ez daukate maskara ipinita, segurtasun tarte aitzakia hartuta, jakin arren leku itxietan askoz ere arrisku handiagoa dagoela birusa kutsatzeko. Germen edo birus bakar bat ere ez da ai-



Oihana Azkorbebeitia Urizar  
Mendi lasterketa

**Maskara uneoro eta leku guztietan derrigortzea astakeria itzela da eta ez du ezertarako balio ondoan inor ez badugu**

**Porrot egiten dutenean, agintariak herria zigortzen dute, euren inkompetentzia onartu beharrean**

rez transmititzen. Ez dute ez hankarik ez hegorik. Bitarteko bat behar dute kutsatzeko: listua, odola... Airean uneoro mugimenduan dagoen fluidoak da eta horrek zaildu egiten du aire librean kutsatzea. Ia ezinezkoa da, partikula mordoa behar delako. Beraz, maskara uneoro eta leku guztietan derrigortzea astakeria itzela da eta ez du ezertarako balio ondoan inor ez badugu. Isuna saihesteko baino ez.

Arnas aparatua babesteko, birrikak osasuntsu izateko eta gure defentsak indartzeko, aire garbia arnastu behar dugu, baina beti maskara ipinita bakterio ustelduak baino ez ditugu arnastuko eta arnas aparatua kaltetu egingo dugu. Zelaiari ateak ipintzen gabiltza, eta beste birus eta germenei alfonbra gorria ipintzen. Koronabirusak arnas aparatuan eta biriketan sortzen du infekzioa, eta lehenetik ondo arnasten ez badugu, ba, akabo! Gainera, maskara batzuk oso denbora gutxirako balio dute eta arriskutsuagoa dela esango nuke, segurtasun faltsua ematen digutelako, ez benetakoa.

Porrot egiten dutenean, agintariak herria zigortu eta herritarren bizkarraren ipintzen dute karga, euren inkompetentzia onartu beharrean. Europako neurriarik zorrotzenak hartu dituzte Espainian zein Euskal Herrian, baina, hala ere, kontinente zaharreko daturik txarrenek ditugu. Atera kontuak hortik.



# DURANGALDEKO TXOKOAK

## Gazteluako buelta

Zenbatu ezina da paseo txiki hau egiten duen herritarren kopurua. Ez da harritzekoa. Ibilbideak ez du zailtasunik, eta bista zoragarriez gozatu daiteke esfortzu txikia eginda. *Gazteluko bueltie*, abadiñarrek halantxik diote maitekiro. Dena dela, Durangaldeko hainbat herritarrek gozaten dute Astola, Gaztelua eta Muntzaratz auzoak lotzen dituen ibilbide honetaz.





# Ostalaritza gida



**Profesionalik  
onenak zure  
zerbitzura!**

 **Iurreta**



**GAUARGI**  
Dantzari, 4 behea - IURRETA  
Gosari bereziak: pintxoak eta tostadak.  
Astelehenetik ostiralera: Menu erdiak  
7€-tan. Egunero zabalik. Domeketan  
rabak.

 **Durango**



**OLAJAUREGI JATETXEA**  
Kurutziaga Kalea, 52 - DURANGO  
**Tel.: 946 200 864**  
[www.olajauregi-jatetxea.com](http://www.olajauregi-jatetxea.com)  
Menu bereziak, taldeentzako menuak  
eta ospakizunak. Terrazako karta.

 **Durango**



**MIKELDI TABERNA**  
Kalebarria, 7 - DURANGO  
**Tel.: 944 073 988**  
Alde zaharrean kokatuta.  
Pintxo gozoak eta giro alaiak.

 **Abadiño**



**ABARKETERUENA**  
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO  
**Tel.: 944 657 790**  
Eguneko menuak eta asteburuetako  
menu bereziak. Goizetik pintxoak.  
Giro oso ona.





## EUSKARAZ PRAKTIKATU NAHI? LAGUN BERRRIAK EGIN NAHI?



**ONLINE**  
ERE BAI

Euskara praktikatu nahi baduzu, baina ez badaukazu norekin egin, edo euskalduna izanda euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen dauzkagu zuretzat: **Mintzataldeak / Familia ekintzak / Txangoak / Tailerrak / Mintzodromoak / Lehiaketak / Hitzaldiak / Mendi irteerak / Asteburu-pasak...**

**ZATUZ GUREKIN!**

**Berba lagun**

639 400 786

[www.durangaldea.blogspot.com](http://www.durangaldea.blogspot.com)  
[durangaldea@aek.eus](mailto:durangaldea@aek.eus)



Abadiño



Atxondo



DURANGO Udala - Ayuntamiento



Elorriko Udala



Garai



Iurreta



IZURTZA Udala



Mañaria



Zaldibar

Sustatzaileak

Babesleak



Durangoko Merinidearen Amankomutazgora



Mancomunidad de la Merindad de Durango



Euzko Jaurlaritzako Gobernua Vasco



Bizkaia

praktikatu  
mintzalaritza  
erakundeak  
aek



## Botikak

### BARIKUA, 25 · 09:00-09:00

**MUGICA ANDRA** Maria  
9 - DURANGO

**GOIRIA, MARI CARMEN**  
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

### 09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - ZORNOTZA

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

### ZAPATUA, 26 · 09:00-09:00

**BALENCIAGA**  
Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

**GOIRIA, MARI CARMEN**  
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

### 09:00-13:30

**GAZTELUMENDI J.A.**  
Abasolo 2 - DURANGO

**MUGICA** Andra Maria 9 - DURANGO

**DE DIEGO** Intxaurreondo  
22. - DURANGO

**CAMPILLO** Montevideo  
etorb. 24 - DURANGO

**UNAMUNZAGA** Muruetatorre  
2C - DURANGO

**NAVARRO** Artekalea 6 - DURANGO

**BAZAN DIAZ** Uribarri 5 - DURANGO

**JAIO-ABENDIBAR**  
Errekakale 6. - ELORRIO

**EGUREN, ISABEL**  
Trañabarren 15. - ABADIÑO

**MELERO, ROSA MARI**  
San Pedro 31 - ZORNOTZA

**GUTIERREZ, IBAN** Txiki  
Otaegi 3 - ZORNOTZA

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - ZORNOTZA

### 09:00-14:00

**IRIGOIEN** Bixente  
Kapanaga 3 - IURRETA

### 09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

### DOMEKA, 27 · 09:00-09:00

**GAZTELUMENDI J.A.**  
Abasolo 2 - DURANGO

**GOIRIA, MARI CARMEN**  
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

### 09:00-22:00

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

### ASTELEHENA, 28 · 09:00-09:00

**IRIGOIEN** Bixente  
Kapanaga 3 - IURRETA

**MELERO, ROSA MARI**  
San Pedro 31 - ZORNOTZA

### 09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - ZORNOTZA

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

### MARTITZENA, 29 · 09:00-09:00

**ETXEBARRIA**  
Montevideo etorb. 2. - DURANGO

**MELERO, ROSA MARI**  
San Pedro 31 - ZORNOTZA

### 09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - ZORNOTZA

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

### EGUAZTENA, 30 09:00-09:00

**UNAMUNZAGA** Muruetatorre  
2C - DURANGO

**MELERO, ROSA MARI**  
San Pedro 31 - ZORNOTZA

### 09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - ZORNOTZA

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

### EGUENA, 1 · 09:00-09:00

**CAMPILLO** Montevideo  
etorb. 24 - DURANGO

**MELERO, ROSA MARI**  
San Pedro 31 - ZORNOTZA

### 09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA



### GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.**

Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.



Irailaren 4an **Anek** 8 urte egin zituen eta 21ean **Garazik** 5. Zorionak etxekuen partez eta mosu handi bat.



Irailaren 26an **Haizeak** 18 urte egingo ditu. Zorionak, ama, aita, Aratz, Lur, Goku, Boo eta Oreoren partez.

## Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 16° / 11° ☁️

ASTELEHENA 🌧️ 20° / 12° ☁️

EGUAZTENA 🌧️ 17° / 11° ☁️

DOMEKA 🌧️ 15° / 12° ☁️

MARTITZENA 🌧️ 17° / 12° ☁️

EGUENA 🌧️ 17° / 13° ☁️

**uxarte**  
SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815  
www.uxarte.com

ZABALIK  
OSTIRALETAN ETA  
ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAR  
ENKARGUZ  
Gutxienez 15  
laguneko taldeentzako

CERAMICAS  
**MACOBER**

ZERAMIKA ETA GRESA  
DEKORAZIOA ETA APAINKETA  
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m<sup>2</sup> BILTEGI - 800 m<sup>2</sup> ERAKUSKETA *Etorri eta ikasi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

**Arrike**  
Liburudonda

Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403

# “Mantsoa, formala eta maitakorra da Handi; bere moduko gutxi daude”

Jacinto Iturriagaetxebarriak bizi osoa darama behiak hazten. Munduko behirik handiena haztea ere lortu du. Baserriaren alboko landan du abelburua, eta bisitari ugari ditu



**Jacinto Iturriagaetxebarria**  
Iturralde  
Abeltzaina  
Abadiño | 1943

## ABADIÑO • AITZIBER BASAURI

**Bere izenari ohore eginez, munduko behirik handiena da Handi. Gazteluko behia da, Jacinto Iturriagaetxebarriaren baserrikoa, eta zazpi urte ditu. Ekainean 1.494 kilo zituen eta "ondo mimatuta" hazi den abelburua da. Carnicas Olaldek erosi du Handi eta [www.oldeko.com](http://www.oldeko.com) webgunearen bitartez egongo da okela eskuragarri.**

**Munduko behirik handiena hazi duzu. Ez da errekor makala...**

Hala diote! Ekainean pisatu genuenean, Handik sei kilo falta zituen

1.500 kilo hartzeko. Aurretik ere neuk nuen errekorra: 1.480 kiloko behia eduki nuen (kanalean 994 kilo). Ez dakit neure errekorra apurtuko dudana, baina lodi dago Handi. Ondo mimatuta daukat. Itxaropena dugu. San Blas feriara eramateko kapritxoak nuen, baina pisu handia du eta min hartzeko arriskua.

### Zein da sekretua horrela hazteko?

Ondo zainduta daukat. Gainean egon beharra dago. Arin galtzen dute pisua, eta astiro hartzen dute. Badaude 1.100etik 1.200era kilo bitarteko behiak, asko, baina hortik gorakoak... Astean behin garbitzen

du Handi eta 10 kilo pentsu jaten du egunero (goizean eta iluntzean banatuta). Lastoa eta bedarra ere jaten ditu, jakina. Hala ere, gazteagoa zenean 14 kilo pentsu jaten zuen. Zelako apetitua duen ikusi behar da, hori bai, gehiago edo gutxiago emateko. Behi hauek armazoi handia dute, handiak eta luzeak dira, eta astiro-astiro hazi behar dira. Bere landan daukat, bakar-bakarrik, minik hartu ez dezan.

### Hainbat komunikabide eta bisitari etorri dira Handi ikustera. Celebrity-ak bihurtu zarete.

Bai (barrez). Askok dira Handi ikus-

tera etorri direnak, kasu egiten diotenak. Eta bidetik apur bat alendu egin behar izan dut, baserria hurbildu dut. Paseoan doazen asko hurbildu zaizkio, “Handi, altxatu zaitez!” esateko.

### Harrotasun puntu bat ere sortzen da halako behia hazita?

Pozik nago, bai, baina horregaitik ezin da harrotu. Egia da suerte apur bat be eduki behar dela. Asmatu

“

**Lo egiteko azpia ona izatea garrantzitsua da, jatekoaren ostean garrantzitsuena”**

—

egin behar da behiagaz; gatxa da halako pisua hartu dezakeen behia topatzea. Frantzia asko ibilia naiz, baina ez dut horrelako behi handirik topatu. Hemen, baserrian, jaioa da Handi. Guk asmatu egin genuen, besterik ez.

### Zelakoa da Handi?

Mantsoa da, formala, eta oso maitakorra. Bere moduko gutxi daude. Ezagutzen nau.

### Esperientzia handia duzu behiak hazten, ezta?

Zaletasun handia dut. Beti gustatu izan zaizkit behiak, 13 bat urte izango nituen behiak gobernatzeko hasi nintzela. Denean lez, jaramon egin behar zaie behiei, zaindu egin behar dira, gustuagaz, eta aintzat hartu. Lo egiteko azpia ona izatea oso garrantzitsua da, jatekoaren ostean inportanteena. Ganadua, horrela, hazi egiten da. Sei hileguz, urtebetegaz, ondo gobernatzeko hasita, ondo hazten da.

### Beste afizio bat ere baduzu: tangoa

Bai, emaztea eta biok tangoa dantzatzeko ibiltzen gara, hemengo inguruko jaietan (Salbadoren, Galdakaon...): 15 kopa ditugu. Autodidaktak izan gara. 20 urte gazi hasi ginen, eta apurka hasi ginen dantzatzeko. Pasodoblea, balsa eta tangoa dantzatzeko genituen, eta errezena eta gustukoena egin zitzagun tangoa. Orain koronabirusa dela eta ez dago aukera askorik.

## Lau hortza

Amaia Ugalde Begoña  
Kazetaria



### Gaur, gaurkoa

Udaberrian, etxetik irten ezin izan ginenean, egoera hura *carpe diem* zela etortzen zitzaidan burura sarri. Ez ziren oso desberdinak bata bestearen ostetik bizi genituen egunak, baina zer egin erabakitzeko gure margen txikian hartzen genituen erabakiak, egunean bertan askotan. Ezin zelako jakin zer egin ahalko zen hurrengo astean edo hurrengo hilean.

Udan, haizea ahal zela musukorik barik hartzeko planak egin ditugu, herri txikietara joan gara, aire librean jateko elkartu, mendi aldera ihesi joan.

Eta udazkenean, planen alfabetoa etorri da. Kontingentzia planak, protokoloak, A, B eta C planak: “momentu honetan daukagun informazioarekin” hartu ahal diren erabakiak; “denok egon beharko gara tarte batez etxean” eta “ea bihar zer”.

Ni neu konturatu naiz lana planifikatzeak lasaitasun moduko bat ematen didala. Beharrezkoa zaidala, eta beharrezkoa dela alor askotan: hezkuntza komunitateak behar du segurtasun apur bat gehiago; kultur eragileek agenda aurretiaz lotu behar izaten dute; bertso txapelketak edo Korrika lako ekitaldi handiak hilabete asko lehenago hasten dira diseinatzen. Euskaraldia ere etorriko da hasi berri dugun udazken honetan. Zelan moldatuko garen ekintzok egiteko? Norjakin!

Plangintza eta kronogramen munduan *carpe diem* esaldia praktikara eroatea egokitu zaigu. Gaur, gaurkoa, eta bihar, ikusiko da. Animo, A, B eta C planak pentsatzen buruari inoiz baino gehiago eragiten ari zaretenei. Gogoratu zer esaten zuen Gu ta Gutarrak taldeak: “Bizitza da bakarra ta soilik ei ditu bi bide, preso bizi gintezke edo erdi libre”.

## DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKI ONENA

Epaimahaiaren saria

Piztu argia, kanpoan ilun da eta...

OLATZ AIZPITARTE

Bozka

Kolorea eta argia

MARIA JESUS LARRAÑAGA

## DURANGALDEKO ARGAZKI ONENA

Epaimahaiaren saria

Oinak lurretik aske, deslai!

ANE BERNAS

Bozka

Txantxangorria naiz

AINARA IBANEZ

UDAKO  
6. ARGAZKI  
LEHIAKETA

anboto

ANTOLATZAILEA

anboto  
komunikabideak

LAGUNTZAILEAK

Caraito  
Landeriaz

Alcampo  
DURANGO

datahost  
Informazio & komunikazioak